

Ikasketa Plana

Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa sailaren, 46/2009 Dekretuan xedatu bezala, araubide bereziko hizkuntza-ikasketak Euskal Autonomi Erkidegoan jartzen dira eta, aldi berean, oinarritzkoa, tartekoa, aurreratua eta gaitasun maila curriculumara ezartzen da.

Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialak helduentzat hizkuntzen irakaskuntza eskaintzen duten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Sailaren menpe dauden zentro publikoak dira.

Oinarritzko Maila (A2), Tarteko Maila (B1), Goi Maila (B2) eta Gaitasun Maila (C1) ematen dira, Hizkuntzen Europako Erreferentzi Markoan (HEEM) ezarritako mailen arabera.

Ikasketa motak

- **Ofiziala:** zuzenekoa, ikaslea klaseetara joaten da eta ikasturteka azterketak egin ditzake dagozkion deialdietan.
- **Librea:** ikaslea ez da klaseetara joaten eta maila ezberdinetako ziurtapen frogetara soilik aurkezten da. Ez dago deialdi mugarik. Ezin daiteke hizkuntza baterako aldi berean matrikula ofiziala eta librea izan, ikasturte batean.

Tituluak

Maila edo ziklo bakoitzaren bukaeran ezarritako frogak gainditzeak dagokion ziurtagiri akademikoa ematen du:

Oinarritzko Mailako Ziurtagiria (A2).

Tarteko Mailako Ziurtagiria (B1).

Maila Aurreratuko Ziurtagiria (B2)

Gaitasun agiria (C1)

Titulu hauek ofizialak dira bai Autonomia Erkidegoan bai Estatu osoan.

Hizkuntza Eskolako euskara tituluen baliokidetasuna

Baliokidetasun-taula

Sarrera

Hizkuntza Eskola Oifizialetan Ikasi ahal izateko, ezinbestekoa da hamasei urte beteta edukitzea ikasten hasteko urtean. Ikasten hasitako urtean hamalau edo hamabost urte dituztenak ere ikas dezakete, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan lehen hizkuntza gisa ikasitakoa ez den hizkuntza bat Isasi nahi badute.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza titulua dutenak Oinarritzko Mailan bigarren ikasturtean (A2) has daitezke, DBHn ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan.

Era berean, Batxiler-titulua dutenak zuzenean has daitezke, nahi badute, batxilergoan ikasitako atzerriko lehen hizkuntzan Tarteko Mailako lehen ikasturtean. Tarteko mailaren lehen ikasturtera modu horretan sartzeak ez du esan nahi, inola ere, aurreko ikasturteak gainditu direneik, eta, beraz, ez du eskubiderik ematen Oinarritzko Mailaren ziurtagiria eskuratzeko.

Aurreko ikasketa-plana	2010-2011
1. maila	Oinarrizko Maila 1 (A1)
2. maila	Oinarrizko Maila 2 (A2) <u>Ziurtagiria A2</u>
3. maila edo Oinarrizko Zikloa <u>Ziurtagiria: Oinarrizko Zikloa</u>	Tarteko Maila (B1) <u>Ziurtagiria B1</u>
4. maila 5. maila edo Goi Zikloa	Maila Aurreratua (B2)
<u>Ziurtagiria: Gaitasun maila</u>	<u>Ziurtagiria B2</u>

Gaitasun Maila
Ziurtagiria C1

*Hizkuntza guztietarako, Euskara izan ezik

Euskararen kasuan (64/2008 Dekretua, apirilaren 8koa eta 48/2009 Dekretua, otsailaren 24koa):

5. maila edo Goi Zikloa <u>Ziurtagiria: Gaitasun Maila</u>	Gaitasun Maila <u>Ziurtagiria C1</u>
---	---

MAILA ETA KURTSOA	NOR MATRIKULATU DAITEKE
Oinarrizko Maila 1	Hizkuntza horren ezagutzarik gabeko ikasleak eta A1 errepikatu behar dutenak.
Oinarrizko Maila 2 (A2)	A1 gainditu dutenak eta A2 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila 1 (B1.1)	A2 gainditu dutenak eta B1.1 errepikatu behar dutenak.
Tarteko Maila 2 (B1.2)	B1.1 gainditu dutenak eta B1.2 errepikatu behar dutenak.
Maila Aurreratua (B2)	B1.2 gainditu dutenak eta B2 errepikatu behar dutenak.
Gaitasun Maila (C1)	B2 gainditu dutenak eta C1 errepikatu behar dutenak
Lehenengoz matrikulatu nahi duen ikasleak ez dauka derrigorrez A1 mailan matrikulatu beharrik. Bere trebetasunari dagokion mailan matrikulatu daiteke <i>maila-proba</i> eginda	



HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA

297/2010 Dekretua
EHHA 219 zk.2010eko azaroak 15

		B-1	B-2	C-1	C-2
EUSKO JAURLARITZA	HAEE-IVAP	1. Hizkuntza-Eskakizuna	2. Hizkuntza-Eskakizuna	3. Hizkuntza-Eskakizuna	4. Hizkuntza-Eskakizuna
	KULTUR SAILA HABE	1. Maila	2. Maila	3. Maila	4. Maila
	OSAKIDETZA EUSKAL OSASUN SERBITZUA	1. Hizkuntza-Eskakizuna	2. Hizkuntza-Eskakizuna	3. Hizkuntza-Eskakizuna	4. Hizkuntza-Eskakizuna
	ERTZAINZA		Ertzaintzaren 1. HE	Ertzaintzaren 2. HE	
	HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA Eusko Jaurlaritza		Irakaspostuen 1.HE HLEA (Hezkuntzako Langileen Euskera Agiria)	Irakaspostuen 2.HE EGA Euskararen Gaitasun Agiria	
	Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. euskera maila (Antzinako Ikasketa Plana) Tarteko Maila	4. euskera maila (Antzinako Ikasketa Plana) Maila Aurreratua	5.euskera mail edo gaitasun maila (Antzinako Ikasketa Plana) Gaitasun Maila (C1)	
	Hizkuntza Eskola Ofizialak				
	Nafarroako Gobernu Hezkuntza Saila			EGA Euskararen Gaitasun Agiria	
	Euskaltzaindia			"D" Agiria	
	Iparalde Euskararen Erakunde Publikoa			EGA Euskararen Gaitasun Agiria	

